

BAUTISTA, G., BORGES, F., FORÉS, A. (2006)

Didáctica universitaria en Entornos Virtuales de Enseñanza-Aprendizaje. Madril: Narcea.

Narcea argialetxean Miguel Angel Zabalzak zuzentzen duen «Univer-sitaria» izeneko bilduma barnean dugu liburu hau eta agerikoa da «Entor-nos Virtuales de Enseñanza-Aprendizaje» delakoaren inguruan hasiberriak edo, besterik gabe, halako testuinguruan irakasle zein ikasle gisa jarduteak zer suposa dezakeen jakin nahi dutenei zuzenduta dago honakoa.

Bereziki unibertsitateko irakasleriarentzat zuzenduta dago, premiak bultza-tuta, testuinguru berri hau ezagutu eta jarduteko klabeak eta, edozein modutan ere, gogoetak egiteko gonbitea, beti ere alde praktikoari lehentasuna emanaz. Hau dela eta, tamainaz (15 x 23 zm.) eta luzeraz (245 or.) oso erabilgarria den liburu honetan alegiazko testuinguruan aritzeko ideiak, adibideak, kasu prakti-koak azalduko dira, oinarrizko puntuak ikutuz: ikasle eta irakaslearen rol be-riak, nola diseinatu eta gauzatu irakastea, nola burutu ebaluaketa, nola lortu ikasleen partehartzea, ikasle kopurua, ikasleen jardueren jarraipenak...

Zazpi ataletan egituratuta dago liburua eta bakoitzean azpiatal bat azal-duko da irakasleen ikuspuntuarekin, beste bat ikasleenarekin eta liburuaren bukaeran eranskin batzuk zenbait gauza, adibide gisa, balio praktikorekin planteatuak.

Lehenengo atala alegiazko testuinguruan irakastea-ikastea zer den eta zer suposatzen duen planteatzen da, azken finean, gaiari sarrera egiten dio atal labur honekin. Begirada sinkronikoa nagusi da bigarren eta hirugarren ataletan, planteatzen ari garen alegiazko testuinguruan ikaslea izatea zer den bigarrenean eta irakasleriari zuzenduz hirugarrena: ikuspuntu berra, motibazioa, tutoretza jarduera, eszenatoki berria, proposamenak...

Ibilbide diakronikoaren pean azalduko dira hurrengo bi atalak; hain zuzen, laugarrenak alegiazko testuinguruan ikasi-irakatsi prozesuaren diseinu eta planifikazioa izango du ardatz (materialak eta baliabide didaktikoak eskainiz) eta bosgarrenak halako egoeratan jarduteko estrategia batzuk eskainiko ditu, etapak agiriko seinalatuz, jardunbideak deskribatuz...

Ebaluaketari helduko dio seigarrenak, bereziki etengabeko prozesua dela agerian jarriz eta klabe batzuk mahai gainean utziz. Zazpigarren (eta azken) atala formakuntza mota honen inguruan pentsatzen dutena aditzera emateko erabiliko dute egileek zortzi proposamenen bitartez, irakurleen gogoetarako gonbitea egiten eta, bistan da, irakasleriaren interesa piztu nahian.

Gainean dugun errealitatea da alegiazko testuinguruan jardutekoa eta hasiberriek zein —epe laburrean— jardun beharrekoek mota honetako liburuak eskuragarri izatea funtsekoa da. Orientabide gisa, beste batzuek izandako esperientziak, planteatzen diren proposamenak, jarduteko iradokizunak... denak ere lagungarri suerta daitezke egun unibertsitateko irakasleriak duen premia honi —gutxienezko bermeeekin— aurre egiteko.

K. Burgoa

BRUCE GOLDSTEIN, E. (2006)

Sensación y percepción. Madril: Thomson.

Lehenengo obrari elementu berriak gehituz eta lanari osotasun kutsua erantziz, seigarrenez argitaratutakoa da Bruce Goldstein-ek idatzitako honako mardul hau: duen luzera (ia 700 orrialde) eta tamaina (26 x 20zm.) ezin bazterrean utzi eta 41 ikustailu aipatzen ditu seigarren argitalpen honetarako; azpiatal berriak ere baditu eta liburuarekin batera *CD Tutor* izeneko CDa ariketak, saioak, frogak, erakustaldiak eta bestelakoekin dator ere, testuan azaldutakoa finkatzeko eta esperimintatzeko.

Dena den, liburu honen garrantzia mamiari erreparatuta azpimarratu behar da. Hamasei atalez eta eranskin birekin osatuta dago: lehenengo atalean hautemateari buruzko sarrera egiten du, fenomenoaren faseak agerian utziz eta —modu berezian— bere garrantzia azpimarratuz, liburuaren egiturari tartea eskainiz. Bigarren atalean ikuspuntu fisiologikoari heltzen dio estimuluek nola eragiten duten neuronetan eta ikusi-sistemaren egituran oinarrituta ere, zentzumenek nola elkarri eragiten dioten planteatzen du ere. Hirugarrenean garunaren egitura aztertzen du eta informazioaren prozesaketa nola eta zein aldetan ematen den ere; modu grafikoan adierazita, zein prozesu jarraitzen dute neuronen bultzada elektrikoek inguruetakoz gauzakien errepresentazioak egiteko. Laugarrenean

gizakien egituran sakontzea ematen da: neuronen espezializazioa, fisiologia eta hautematearen arteko erlazioa, ikus arreta... eta garunean kalte duen batengan zer gertatzen den, gure garunaren egokitzapena ikuskera filogenetikopean...

Bosgarrean, Gestalt-en ikuspuntua aztertzen du ezagunak diren adibideetan galderak egiten eta baieztapen batzuen funtsa bilatzen, esaterako: zergatik psikologo batzuek diote osotasuna ezberdina dela zatien meta-ketarekiko. Seigarrenak zuzenean kolore hautemateari zuzenduta dago: teoriak, argiaren iraupena, ikusmen akasdunen kasuak, animalien kolorearekiko ikuskera.... Zazpigarrenak tamaina eta sakoneraren hautematea du gai, estimuluek erretinan nola eragiten duten eta ikusi-ilusio bilduma ere esperimintatzeko: Müller-Lyer, Ponzo, Poggendorf, Zollner... Zortzigarrena mugimenduaren hautemateari buruzkoa da eta hemen ere adibideak eta kasu praktikoak barra-barra asalduko dira: pelikulek sortarazten duten mugimenduaren ilusioa, zergatik zenbait animalia beldurraren aurrean gelditu gelditzen diren... Bederatzigarrenak honekin lotura du begiralea mugimenduan egonda, mugimendua nola hautematen duen planteatzen baitu.

Hamargarrenak zentzumenez aldatzen du; oraingoan soinua baita iker-gai: entzutearen esperientzia, entzute sistemaren egitura, uhin-frekuentziak, ea soinua izateko jasotzailerik egon behar den. Atal honi hurrengoak emango dio jarraipena soinuen ezaugarriak aztertzen, espazioan nola kokatzen ditugun soinua, soinu-iturriak nola identifikatu. Hamabigarrena ordea, mintzaeraren hautemateari buruzkoa da, honek planteatzen dituen arazoak, alderdi fisiologikoa... Hamahirugarrena ukimenari buruzkoa da, azala eta azal-hartzaileak nolakoak diren, informazioaren transmisioa, prozesaketa, minaren hautematea, mailak, kontrola daiteke?, hartzaile espezializatuen kasuak, gorputzeko alderdirik sentiberenak... Hamalagarrean, azkenean, usaimena eta dastamena azalduko dira, egiturak aztertuz, animaliekin alderatuz, zentzumenen arteko eraginak...

Hamabosgarrenak hautematea giza garapenean aztertzen du, bereziki haur hautematearen inguruko ahalmenak, arazoak, patologiak eta abar azalduz eta ikusmena nagusi bada ere, beste zentzumena ere aztergai dira. Hamaseigarrena zentzumenen patologietara zuzenduta dago, hain zuzen, ikusmena (miopia, astigmatismoa, itsutasuna, glaukomak...) eta entzumen-a dira (gorreria, mailak, presbiakusia, tinnitus...) hemen tratatzen direnak baita hauen aurrean zer egin daitekeen ere.

Liburuak bi eranskin gehitzen dizkio aurrekoari: lehenbizikoa entzumen-seinaleak detektatzeko prozedura eta teoriari buruzkoa da eta bigarrena, Fourier-en azterketaren bidez espazio-maiztasuna zehaztekoa. Bukatzeko, testua ongi ulertzeko 24 orriko glosategia gehituta dago baita ugari den bibliografia ere.

Bukatzeko esan ondo zainduta dagoela alde estetikoak eta irakurleari gauzak errazteko grafikoak, irudiak, taulak eta bestelakoak maiz baino maizago agertzen direla atal ezberdinetan baita —kolorea ikergai izanda— oso lagungarriak diren lamina koloredun batzuk ere. Ikasteko liburua izanda, atalak egitura eraginkorrean datoz, laburpenak beti eskainiz baita norberaren burua neurtzeko, ikasitakoa balioztatzeko galderak ere.

J.M.^a López de Heredia

TALEB, N. N. (2006)

¿Existe la suerte? Engañados por el azar. Madril: Thomson.

Zalantzarik gabe, liburu bitxia honakoa: informala eta aldi berean erakargarria izan nahi duen sailkagaitz den liburu hau toki eta egoera ezberdinetako hainbat lagunek izaten dituzten zenbait gertakizunetan oinarritzen da. Kasuistika ugaria baina nagusiki finantza mundutik abiatuta, itxuraz dohaina den ia dena, zoriaren agerraldia baino ez dela erakutsiko digu.

Zoriaz dihardu liburuak eta esan daiteke bigarren argitalpen hau ausazko emaitzetan interesa duen ororentzat zuzenduta dagoela eta asturu, zori eta gainbaloratzen den ustekabekoaren aurrean istorio eta gertakari interesgarrien bidez autoreak erakutsiko digu mundua eta bertan gertatzen dena logikaren barruan ulergarriagoa dela sineskeriatan oinarritutako ikuskeran baino.

Liburua hiru multzotan eta hamalau ataletan dago egituratuta. Lehenengo multzoak zazpi atal batzen ditu eta modu orokorrean, modu errazean zoriaren eskutik datorrena modu errazean ere desager daitekeela eta —honekin estuki loturik— lan eta izerdiaren bitartez lortzen denak gehiago irauten dela ere esango digu.

Bigarren multzoak zortzigarren ataletik hamaikara hartzen ditu eta modu orokorrean esan dezakegu errealitatearen ikuskera desitxuratuaz jarduten duela, hots, garaileak bakarrik atzematen ditugula, bere osotasunean hartu gabe bazterrean gelditutakoak, hots, arrakastak itsutzeko joeraz.

Hirugarren multzoak, hamabitik hamalaura, alderditik gizatiarrenez dihardu, hots, gizasemeen ahuleziaz jabetuta, zenbait baliabide agertuko dira zoriaren ikuskera baikor horren aurrean garaile atera ahal izateko.

Irakaskuntza arlotik gain aurkitzen den liburu hau ezin irakurle zehatz batentzat gomendatu, gure bizitza arruntean eta erabakikorrek diren uneetan zoriak jokatzen duen paperaz zernahi jakin nahi duenarentzat dela esango nuke.

K. Burgoa

GUILERA AGÜERA, L., (2007)

Más allá de la Inteligencia Emocional. Las cinco dimensiones de la mente. Madril: Thomson.

Ez dira oraingoak adimena analisi eta arrazoiketa hutsean planteatutako ikuspuntuak gaindituak izan direla adimenaren beste dimentsioak agerian jartzearekin batera eta indar berezia hartu izan du adimen emozionala deiturikoak, adimenaren esparrua lehen artekoa baino zabalagoa zela errebindikatzekeo aldarri gisa. Emozioak modu orekatuan kudeatzen ez badakigu ezin izango gara erabat adimentsuak izan. Eta zer gertatzen da beste dimentsioekin? Zer gertatzen da senarekin, zer intuizioarekin, zer etorkizuna planifikatzeko ahalmenarekin?

Honako liburuak burmuina eta adimenaren funtzionamenduan sakondu nahi du honen bost dimentsioak (sena, emozioa, intuizioa, arrazoibidea eta etorkizunari begira planak egitea) agerian jarriz eta hauek bereiztu, hauetan sakondu, bakoitzak dituen ahalbide eta mugak ezagutu... goreneko ondorioak atera ahal izateko egoeran egongo garelakoan dago.

Zientifikotasunari muzin egin gabe jende xeheri zabaltzeko pentsatuta dago eta ezagutza mailan ez ezik auto-laguntzan ere tresna interesgarria izan daiteke honakoa; azken finean, *adimenaren ahalbide eta mugak ezagutu itzazu eta zoriontasunaren mesedetan erabiltzen ikas ezazu* izan zitekeen lelo nagusia.

Hamar ataletan egituratuta dago: lehenengoan adimenaren bost dimentsioak definitzen dira (sena, emozioa, intuizioa, arrazoibidea eta etorkizunari begira planak egitea) eta espezien bilakaeraren barruan adimenaren bilakaeran oinarrituz. Bigarrenak hautemateak, oharmenak, kontzientziak, oroimenak eta ezagumenak zeintzuk baliabide psikologiko dituzten batera zehazten ditu. Hirugarren atala zuzenduta dago sena deskribatzeari. Laugarren eta bosgarrenean emozioak eta adimen emozionala dira gaiak. Seigarrenean intuiziozko adimena dugu eta zazpigarrenean arrazionala. Zortzigarrenak adimen arrazionala eraginkorragoa izateko estrategia garrantzitsuak deskribatzen ditu. Bederatzigarrena planak egiteko adimenari zuzenduta dago eta azken atalean adimen eraginkor konzeptua lantzen da, beti ere adimenaren bost dimentsioen funtzionamendu harmonikoan oinarrituz.

Llorenç Guilerak «Universidad Politécnica de Catalunya» izenekoan dihardu irakasle gisa eta igarri egiten da liburuaren egituran, etengabe gertuko adibideak erabiltzean, irudiak, grafikoak eta bestelakoak eskaintzean, alderdi formalak zein garbi eta argiak suertatzen diren ikustean, azpiatalen luzerak zaintzean eta modu orokorrean nola irakurlearengana iristeko -mezua erraz uler dezan- ardura hartua izan den. Liburuaren tamaina (23.5 x 15.5zm.), zabalera (260 orri inguru), erakargarria den aza-

la eta zaindutako beste elementu formalak (hizkiak, tarteak e.a.) mamiari buruz esandakoarekin batera liburu gomendagarri baten aurrean gaudela esateko elementuak dira, prezioa ere (18) eskuratzeko oztopo ez izanda.

J. M. Mues

CARROLL, D. W. (2006)

Psicología del lenguaje. Madril: Thomson.

Unibertsitateko ikasleei Psikolinguistikaren oinarriak era eskuragarri eta erakargarrian eskaintzea da egilearen nahia laugarren argitarapena den liburu honekin. Bost zatitan 14 atal batzen ditu egileak. Lehenengo zatia sarrera eta gauza orokorrei zuzenduta dago eta hiru atal sartuta daude: lehenengoak, errepasso historikoa egiteaz gain, psikolinguistikaren helburuaz dihardu; bigarrenak gramatikako oinarritzko kontzeptuak argitzen ditu eta gai interesgarriak jorratzen ditu: gramatikaren errealitate psikologikoa, lengoiaia jaiotzekikoa den...; hirugarren atalak informazioa nola prozesatzen den eta nola aplikatzen den lengoiaian jorratzen ditu nagusiki, lengoiaia, oroimena eta ezagutzaren arteko erlazioak planteatuz.

Bigarren zatiak lau atal ditu lengoaiaren aditze edo ulertzearen inguruan eratuak; horrela, laugarren atala lengoaiaren hautemateari buruzkoa da; hurrengo atala lexikoari buruzkoa; seigarrena perpausen ezagutza eta oroimena, eta bukatzeko, zazpigarrena gauza bera, baina oraingoan diskurtsoaren ezagutza eta oroimena izango da aztertuko duena.

Hirugarren zatia motzena da, bi atal baino ez baitu, hauek hain zuzen: zortzigarrena hizkera, mintzaeraren ekoizpenaz arituko da eta bederatzigarrena elkarriketaren egituraz, partaideez, testuinguruez... Horrela laugarren zatiari ekiteko tenorean gaude, orokorrean lengoaiaren jabetzaz jarduteko hiru atalekin: hamargarrenean, lengoaiaren jabetza goiztiarra planeatzen da; hamaikagarrenak aldiz, lengoaiaren jabetza berantiarra aztertuko du eta hamabigarrenak lengoaiaren jabetzaren prozesuak aztertuko ditu, hizkuntzaren testuingurua, ezagutza prozesuak eta jaiotzekiko mekanismoak hurrenez hurren azalduz.

Azkeneko bi atalak bosgarren zatiak biltzen ditu eta, modu orokorrean, esan dezakegu oinarritzko prozesu psikolinguistikoak (ezagutza, ekoizpena eta lengoaiaren jabetza) ikuspegi biologiko eta kulturalpean kokatuz aztertzen dituela; horrela, hamahirugarrena lengoaiaren oinarri biologikoetara zuzenduta dago (garuna eta lengoaiaren arteko erlazioa planteatuz, lengoaiaren garapena...) eta hamalaugarren atalak lengoiaia, kultura eta ezagutza du izenburu adierazgarria.

Bestaldetik ezin nabarmendu gabe utzi liburuaren egitura, oso egokia ikasle zein eremu honetan sartu nahi duenarentzat: atal bakoitzarekin hasi baino lehen ikasi beharreko lau-sei oinarrizko puntu aurkitzen ditugu, modu argian eta orekatuan mamia garatzeko gero eta atal bakoitzaren bukaeran ditugu: 8-16 lerrotako lagungarria den laburpena, atalean azaltzen diren ezagutzak errepasatzeko zenbait ariketa, galdera multzo, eta azkenean ‘gogoetarako galderak’ izenekoak bi-bost galderekin irakurlea atalaren mamiaren inguruko gai interesgarrietan kilikatu nahi du, ezagutzan sakondu eta ikasitakoa finkatzeko.

Bibliografia luzearen aurretik ezin zitekeen falta glosategi osatua eta —liburu guztiarekin bat etorri— txukuna. Kontsulta eta ikasteko liburu interesgarria dugu hau, testuliburu gisa pentsatua eta sortua izan dena. Zailtzarik gabe, aprobetxagarria.

J. M.^a Sagasti

KEOGH, B. (2006)

Temperamento y rendimiento escolar. Qué es, cómo influye, cómo se valora. Madril: Narcea.

Liburu honen sintesi zehatza izenburuan bertan aurkitzen dugu. Izan ere, egileak temperamentuaren eragina aztertzen du eskola-errendimenduan. Eta sakon aztertu ere.

Horretarako gutzirako, liburuaren egiturak asko laguntzen du irakurketa. Lehenik temperamentuaren definizioa zehazten du hainbat autoreen erre-pasoa egin eta gero. Jarrera-estilo gisa definitzen du temperamentua egileak, eta horrek, jakina, bizitzaren hainbat arlotan eragina edukitzen badu —positiboa zein negatiboa—, eskola-errendimenduan ere. Horrela, ikasleen temperamentua oso aintzat hartzea garrantzitsua da, bai curriculuma eta irakas-estiloak zehazterako garaian, bai gelako jarduerak antolatze-ko orduan, baita ikasleen arteko eta ikasle eta irakasleen arteko elkarrekintza aztertzerakoan ere. Horrekin batera, temperamentuaren ikuspegi biologiko zehatza dakar liburuak, eta berau eta adimenaren arteko loturak ere aztertzen ditu Keogh-ek.

Horren guztiaren ondotik, temperamentu bera hartu eta irakasleen erabakietan, jarrera arazoetan eta minusbaliotasunetan duen eragin aztertzen du egileak. Honako ondoriora iristeko: temperamentuak eragin nabarmena duela horietan guztietan, beti ere ikaslea eta irakaslearen arteko harremana kontuan hartuta, eta gela barruan. Hortaz, gelako programazioetan ikasleen temperamentua oso aintzat hartu beharko litzateke, askotan antolakuntza kontuak eta beste hartzen diren neurri berean.

Horretaz gain, eta irakurlea ase uzteko tenperamentua nola ebalua daitekeen argitzen digu autoreak. Kapitulu hau oso interesgarria da, izan ere, tenperamentua ez da eskuragaitza den zerbait, neurri handi batean, ebalua daitekeena ere bada, egilearen ustez. Horretarako bai behaketa zorrotza, elkarrizketak eta galdetegiak nola egin ditzakegun aurki genezake.

Bukatzeko, eta sintesia gisa, ordura arte liburuan jasotako guztia eskolan nola erabil dezakegu eskolan agertzen da, bai hautemateak aldatzeko, planifikazioa eta esku-hartzea hobetzeko, eta norberak bere burua hobeto ezagutzeko. Liburuaren atalik praktikoena da. Gainera, azpimarratu beharra dago eranskin eta bibliografia atala ere oso osatua dagoela, eta gaiarekin lotutako hainbat liburu eta adibide eskaintzen dizkigu.

Asier Huegun

TORRES, J. (2006)

La desmotivación del profesorado. Madril: Morata

Azken urteotan sarritan entzuten ditugu irakasleen artean gogogabetasuna eta motibazio falta agerian uzten dituzten hizketaldiak. Alde batetik, beraien lanarekin asebeterik ez daude; eta, beste aldetik, zaila ikusten dute egoerak hobera egitea. Jurjo Torresek ideia hori hartzen du liburu hau garatzeko orduan. Bere ustez, irakasleriaren zati handi bat ezinegona eta atsekabea sentitzen baitu bere irakaskuntza eta hezkuntza zeregina egunero gauzatzen duenean.

Horrela, liburuak bi zati nagusi ditu. Lehengoan irakasleriaren desmotivazioaren arrazoiak xehetzen ditu autoreak. Bigarrenengan, egoera hori aldatzeko ildoak marrazten ditu.

Desmotivazioaren arrazoi nagusiak bi taldeetan banatzen ditu Torresek: oro har, eskolaren egitura arazoak eta irakasle eta ikasleen arteko komunikazio arazoak. Hortaz, irakaskuntzaren ikuspegi teknokratikoak profesionalen lana gehiegi zamatzeak ekarri du, eta, ondorioz, zentroen kultura demokratikoa higatu. Horrek guztiak, aldi berean, profesionalen arteko zein profesional eta ikasleen eta familien arteko komunikazio hoztea, baztertea eta ahaztea ekarri du. Xehetasun horietan guztietan barneratzen da autorea, baina ez ikuspegi deskriptiboa soilik emateko, bere iritziz zurruna eta kritikoa ere aipatzen du pasarte askotan. Zentzu horretan, lehenengo zati hau oso argia da, ongi egituratua eta adar asko dituen gaiari buruzko kokapen zehatza eskuratzeko guztiz baliagarria zaio irakurleari.

Bigarren atala, ordea, guztiz funtsezkoa izan arren, hau da, desmotivazioaren arrazoiak aldatzeko ildoak agertzea, sakontasun gehiagoren beharra sumatu dugu. Izan ere, Torresek esaten du eskolan egitura malguagoak beharrezko-

ak direla, eta eskola-jarduera eta eskolorduz kanpoko jardueren arteko uztarke-ta argiago eta koordinatuago baten beharra dagoela, baina, zoritxarrez, ez da sartzen ur sakonagoetan, non ideia horiek praktikara nola eraman daitezkeen, zer egin daitezkeen, zein zailtasun egon daitezkeen eta abar azalduko digun.

Alde horretatik, oro har, liburu interesgarria den arren, desorekatua ere badela esango genuke. Lehen atal zehatza, argia eta zorrotza du; baina, bigarrena azaletik baino ez du aztertzen. Gaude bigarren liburu baterako hari-mutur ezin hobea izan daitekeela.

Asier Huegun

FERNANDEZ GARMILLA, A. eta BELTRAN URCELAY, J. M. (2006)

Jolas gaitezen (CD-ROM).Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Honako CD-ROM hau Premia Bereziatako ikasleei zuzendutakoa da.

Izatez, ezagunak dira Hezkuntza Bereziaren arloan dagoen egoera makalari azken urteotan Hezkuntza Administrazioaren eta irakasleen aldetik irtenbide egokia bilatzeko eman izan diren urratsak, eta, egia esan, ez dira gutxi ez txikiak izan lortutako emaitzak.

Halere, hasierako urratsak baino ez dira izan, eta asko eta asko ditugu oraindik premiak, hutsuneak eta gabeziak.

Horietako bat, nabarmenean ziurrenik, curriculum-materialekin zerikusia duena da; izan ere, esparru hau ez baitago beharko lukeen bezain hornituta (batez ere informatika munduari atara lekiokkeenari dagokionez), eta, are gutxiago, euskarazko material eta baliabideen alorrean.

Horren ondorioz, ezaguna bezain larria da Hezkuntza Bereziko profesionaloi maiz asko gertatu ohi zaiguna, hots, honelako gabezia-egoerak gainditzeko nekez eskaini ahal izaten diegula Hezkuntza Bereziko ikasleei gure profesionaltasuna eta borondate ona baino askoz gehiago.

Eta ondo baino hobeto dakigu arlo honetako profesionalok Premia Bereziatako ikasleek, egokiro prestaturiko giza baliabideez gainera, oso erre-kurtsu espezializatuak behar dituztela beren heziketa eta garapenerako.

CD-ROM honek, beraz, Hezkuntza Premia Bereziaren esparruan fun-tsezko hutsuneak asetzen hasteko helburua du material espezializatu horiei dagokienez, betiere, jakina, informatikak ikasle-guraso-irakasleoi eskain diezazkigukeen erabilgarritasun, erraztasun eta laguntza eskergei ahalik eta etekin gehien aterez.

Ikasmaterial informatiko hau komunikazioan eta lengoian Premia Bereziak dituzten ikasleei zuzenduta dago. Material honen bitartez, ikasle bakoitzak bere ikasketa-prozesua antolatzea, apendizaiia ziurtatzeko estrategia bereziak lantzea, eta, oro har, lengoaiaren jabetze prozesua, komunikaziorako gaitasuna eta mintzairaren ekoizpena lortzea bilatu da.

Aniztasunaren trataera irizpidetzat, bada, burutu den ikasmaterialak adin ezberdinetako Premia Bereziako ikasleak izan ditu ikusmiran: mugimen-urritasun dutenak, autismo espektroan kokatzen direnak, garun paralisia dutenak, Down sindromea dutenak, Joubert sindromea dutenak, hizkuntzan atzerapenak dituztenak, etab.

Orobat, proposatzen den ikasmaterial honen guztiaren jasotzaile eta erabiltzaile zuzenak ikasleak izango badira ere, haiez arduratzen diren profesionalak gertatuko dira material honen zinezko hartzaileak, hala ikastetxeetako logopedak nola PT tituludunak eta beste.

CD-ROM honetan garatu eta eskaini diren materialak, lehenik eta behin, ikasleen arazoak tratatzeko lagungarriak eta ahalik eta erabilgarrienak suerta zitezela nahi izan da.

Batetik, ahozko hizkuntzan arazo larriak dituzten haurrei eskola-curriculuma hurbiltzeko zinez lagungarriak gertatu behar zaizkie materialok, benetan baliagarri izango badira. Hortik, bada, lan (ipuin, sekuentziario, asmakizun...) bakoitza prestatzeko kontuan izan diren irizpideak eta graduazioak.

Bestetik, Hezkuntza Bereziako ikasleen ezaugarriak direla eta, bitarteko orok gorde behar duten ezaugarri nagusienetarikoa da erabilgarritasuna, hau da, beraien neurri trebetasun eta ezaugarri psiko-motorikoen mailara egokituak izatea.

Guztiarekin ere, bada nabarmendu beharreko beste hainbat ezaugarri, honelako errekurtsoek arreta handiz zaindu behar dituztenak. Alegia, ikasleek hurbileko sentitu behar dituzte material guztiak, normalean bai kontrolatzeko bai beraien inguruan eragina sortzeko zailtasun handiak ohi dituzte eta.

Era berean, ikasleen autozuzenketa errazteko modukoa izan behar du materialak betiere, berriro saiatzeko aukerak eskaintzen dituena, hain zuzen.

Orobat, ikasleen emozio eta ezagutze-garapenean eragin zuzena lortzeko derrigorrezkoa da materialaren alderdi plastika- eta ikus-entzunezko alderdia modu berezian zaintzea (irudiak, kolorea, musika, hizkuntza...)

Esan gabe doa material informatikoak ikasleen bat-bateko erantzuna eta komunikatzeko gaitasuna bermatu behar dituela ezinbestean.

Materialak genero anitzekoa behar du izan (ipuinak, abestiak, asmakizunak, errezetak...) eta, aldi berean, hainbat arlo jorratu (fonetika, semantika, lexikoa, morfosintaxia...)

Nahiz eta baliabide «errazen» eta «konplexuen» arteko mugak beti nabarmenak ez diren, materialaren aniztasunak nahitaezkoa du graduazio-irizpidean oinarritutako sailkapen metodologiko-pedagogikoa egokiro finkatuta izatea. Izan ere, norberaren ikasketa erraztea eta materiala ikaslearen mailara eta duten erritmora egokitzea baita helburu nagusietako bat.

KontZeptuei gagozkielarik (komunikazioaren eta lengoaiaren barneko hainbat atalak: fonetika, lexikoa, morfosintaxia...), gogoan hartzekoa da haietako gehienak Haur Hezkuntza etaparekin lotuak daudela. Edonola ere, hainbatetan -ikasleen mailagatik, hizkuntza arazoan larritasun/arintasunagatik, etab.-ezinbestekoa izango da etapa hori gainditzea eta bestelako edukiak ere lantzea.

Jorratu beharreko eduki-segidak markatzeko, derrigorrezkoa izango da ikasleen ezaugarriak gogoan hartzea. Edozein modutan ere, ikasmaterialak arloka aurkeztu dira sailkatuak, batik bat generoen arabera ondozkatutako ataletan (ipuinak, olerkiak, asmakizunak, abestiak, sekuentziazioak...)

Txema Preciado

ROIG RECHOU, B., SOTO LÓPEZ, I. eta LUCAS DOMINGUEZ, P. (koord.) (2006)

Multiculturalismo e identidades permeáveis. Vigo: Xerais.

Santiago de Compostelako Unibertsitateak (USC) Asociación Galega do Libro Infantil e Xuvenil (Gáliz) delakoarekin batera urtero antolatzen dituen «As literaturas infantís e xuvenís ibéricas. A súa influencia na formación lectora» izeneko Etengabeko Formakuntzarako ikastaroak «Multiculturalismo e identidades permeáveis» gai espezifikoak izan zuen hizpide 2006ko irailean. Ikastaro hartan aurkeztutako ponentzia eta lantegi interesgarriak liburu honetan bilduta plazaratzen dira orain.

Lehen parte hartzaileak, Miquel Nicolás (Universitat de València), tesuinguruan kokatu zuen gaia, hartarako oinarri teoriko eta bibliografikoak eskainiz. Horretaz gain, kulturarteko gatazkei buruzko eztabaidak aztertu, eta gaur eguneko errealitate kulturala deskribatzen du.

Ondoren, urtero egin ohi den bezala, multikulturalismoa gai duten arlo iberikoko haur eta gazte literaturako obren aukeraketa bat aurkezten da, hamalau guztira, tokian tokiko adituek egindako komentaketa eta lanketa lagun. Galegoz, katalanez, portugesez, gaztelaniaz eta euskaraz idatzitako obrak agertzen dira. Euskal obrei dagokienez, Bernardo Atxagaren *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, eta Patxi Zubizarretaren *Usoa, hegan etorritako neskatoa* aztertzen dira, Mari Jose Olaziregi eta Xabier Etxaniz Eleren eskutik, hurrenez hurren. Olaziregik XIX. mendearen amaieratik

aurrera Ameriketara artzain joandako euskaldunen diaspora aztertu du Atxagaren liburuaren aitzakian, datu ugari eskainiz eta gai berari buruz idatzitako beste obra batzuekin harremanetan jarritz. Etxaniz Erleren kolaborazioan berriz, Afrikatik eta Ekialde Hurbiletik etorritako umeen tratamendua aztertu du Zubizarretaren liburu batzuen aztarnari jarraituz: kulturen arteko talka izugarria sentiberatasun bereziaz literaturara ekarria.

Antzeko azterketak egiten dira beste hizkuntzetako obren ikuspegietan, beti ere kultura aniztasuna, elkartasuna, tolerantzia, eskola-integrazioa, mestizajea, exotikotasuna eta diaspora bezalako kontzeptuen inguruan.

Liburu hau irakaskuntza aritzen diren profesionalentzako ezinbesteko erreferentzia da, «gurea» eta «beste» terminoen arteko mugak inoiz baino lausoagoak diren garai hauetan.

Manu López Gaseni

SIRAJ-BLATCHFORD, J. (bil.) (2005)

Nuevas Tecnologías para la educación infantil y primaria. Madril: Morata

Liburu honetan teknologia berrien inguruan egindako ikerketa-lan desberdin batzuen emaitzak aurkezten dira. Lan hauek haur eta lehen hezkuntza mailatan kokatzen dira eta *Europako Batzordaren Experimental School Environments* ekimenaren inguruan burututa daude. Orokorrean, aurkeztutako lanak eta horren inguruan sortu diren lan taldeak ondorengo helburuak lortzera zuzendu dira: haur eta gazteen komunikazioa bultzatu, egoera gatazkatsuen aurrean sormena sustatu eta hezkuntza premia bereziko egoerari erantzun desberdinak proposatu.

Liburuaren kapitulu bakoitzean ondorengo proiektu bana aurkezten da:

Caress proiektuan teknologia berrien bitartez ingurune akustiko eta el-karreragilea sortzen dute haurren sormena, irudimena, eta adierazpena gartzeko asmoz.

Construction kits Made of Atoms and Bits (CAB) tresna informatikoa zortzi urte baino txikiagoak diren haurrentzat pentsatuta dago. Honekin gazteek objektu zibernetiko berriak diseina eta eraiki ditzakete.

Children in Chros and Chronos (C3) proiektua. GPSeko teknologian oinarritutako jokoak sortu dute gaitasun espazialak eta tenporalak lantzeko.

éTui proiektuan robot sentiore-anitzekoak eta programagarriak asmatu dituzte haurrak estimultzeko asmoarekin. Modu honetan ikasten ikastera bultzatu nahi dute.

KidStory ezarpena. Istorioak kontatzen laguntzen du leku birtualak sortuz. Modu honetan istorioaren lekua eta denbora irudikatu daiteke.

Networked Interactive Media in Schools (NIMIS). Etorkizuneko gela sortzeko asmoa bilatzen du. Horretarako informazio eta komunikaziorako teknologia berriak erabiltzen dituzte, gela bakoitzean sarean konektatutako ordenadoreak, pantaila handiak eta ezarpen interaktiboak jarriz.

Playground proiektua. Haurrei laguntzen die existitzen diren joko birtualen arauak pentsatzen eta jartzen.

Pogo tresna. Honen bitartez haurrek asmatutako pertsonai baten nortasuna ordenagailuz egindako beste pertsonai birtual bati esleia diezaioke

Puppet proiektua. Aprehendizai goiztiarra bultzatzeko asmoarekin sortu da. Horretarako haurrek asmatu eta zuzendu dezakete txotxongilo birtualak eszenatoki birtual batean.

Today's Stories. Ikasleen gogoeta bilatzen du. Horretarako, haurrek mini kamara eramangarriak baliatuz eguneroko ikus-entzunezkoak egiten dituzte eta grabatutakoaren inguruan hausnarketak bultzatzen dira.

Proiektu guzti hauek lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleei teknologia berrien erabilera desberdinak ezagutzeko aukera ematen die. Halaber, liburu hau erreferentziazkoa da baliabide informatikoren aplikapena hezkuntza formalaren alorrean ikertzen dutenentzat zeren eta honi ezker Europa mailan sortzen ari diren lantalde eta joera berriak jasotzen baitira.

Arkaitz Lareki

JASOTAKO LIBURUAK

EXLEY, K. eta DENNICK, R.(2007)

Enseñanza en pequeños grupos en Educación Superior. Tutorías, seminarios y otros agrupamientos. Madril: Narcea.

HERNANDEZ, P. «GUANIR» (2006)

Los moldes de la mente. Más allá de la inteligencia emocional. Tenerife: Tafor / Narcea.